

AIARALDEA *hemen*



BELGORRI TALDEA:
"Rocka da gure musikaren oinarria, baina ez dugu gure soinua mugatu nahi" 12 or.

GEHIGARRI BEREZIA:
Maiazaren 26an ospatuko da Txakolin Egunaren XXV. edizioa Amurrion



“Indarkeria ez zen hasi Hamasen erasoarekin”



elkarrizketa

“Mendebaldeak pentsatu behar du prest ote dagoen Gazako genozidioa eta Zisjordanian gero datorrena onartzeko”



TERESA ARANGUREN ARTZINIEGAN JAIO ZEN, BAINA BIZITZAK MADRILERA ETA GERO PALESTINARA ERAMAN ZUEN. OKUPAZIO ISRAELDARRARI BURUZ LUZE IDATZI DU KAZETARI ETA LIBURUGILE MODUAN.



Testua eta argazkiak **Aimar Gutierrez Bidarte**

Zergatik dago Teresa Aranguren lotuta Palestinara?

Ni Artziniegan jaio nintzen, baina Madrilen egin nituen ikasketak guztiak. Herrira etortzen ginen udan, ekainean etorri eta urrian joan, baina nire harremanak Palestinarekin 1970eko hamarkadako amaieran dauka sorburua. Nire senarrak eta biok Jordaniara joatea erabaki genuen, berak unibertsitate batean lan egiteko. Jordaniako Iparraldeko biztanleriaren %70 errefuxiatu palestinarrik dira. Hor hasi nintzen errealtate hori ezagutzen eta eskuz idatzitako erreportajea bidali nuen PCEko aldizkarira, Mundo Obreiro. Hortik dator nire lotura Palestinarekin, errefuxiatuekin harremana zuzena izan nuelako eta jakintza ere.

Gero errealtate horri jarraipena egin diozu.

Bai, 1981etik aurrera kazetari gisa hasi nintzen lanean Mundo Obreeron eta hurrengo urtean izan zen Israelgo inbasioa Libanon. Hori izan zen nire lehen jarraipena gerra eremuan. Niretzat mugarrria izan zen, konturatu baintzen Israelgo Armadaren basakeriaz. Orain ikusten ari gara na lazgarria eta okerragoa da, baina aurrekariak ditu. Ez da ezustekoa, ibilbide baten barruan dago.

Hor ezagutu nuen barrutik palestinarren errealtatea, gizarte palestinarren ezaugarrietako bat baita abegikortasuna. Urtebetez joan nintzen familiekin eta handik atera nuen materiala *Palestina. El hilo de la memoria* idazteko. Hainbat aldiz argitaratu dute berriro, azkena berriki.

Libururako bilatu nituen palestinar nagusiak, jasotzeko nola egin zuten ihes Palestinatik. Hortaz, Nakhbaren kontakizuna, hau da, herri palestinarren kanporaketa, pairatu zutenen bitartez dago jasota. Jatorrizko lapurreta horren lekukotza zuzena da.

Oso neurrizko kontakizunak izan ziren. Palestinarren kultura da ez aztoratzea bisitariak bere sufrimendurekin. Ez badiezu etengabe galdetzen ez dute zehaztasunik eskaintzen. Agian esaten dizute joan zirela ezin zirelako han bizi eta horren atzean dagoena da indarrez bota zituztela etxetik, Zisjordanian bideetatik atera zirela eta bidean aitona hil zela. Gertakizun beldurgarriak, baina eurek ez dute kontatzen, printzipioz.

Badirudi Gazako indarkeria urrian hasi zela, nolako zen lehen han egoera?

Israelgo propagandak esaten duena gorabehera, indarkeria ez zen hasi Hamaseko erasoarekin urriaren 7an. Okupazioaren egoera lazgarria da Zisjordanian eta Gazan blokeoaren bitartez. Espe-txe egoeran zeuden han. Izan ere, Gazako herritarren %70 Nakhbako errefuxiatuak dira, 1948an kanporatuak eta euren ondorengoak. Sarraskia pairatzen dutenak dira 1948an bota zituztenen ilobak.

Orain egiten ari direna da, Israelgo Gobernuaren buruan, nolabaiteko 'Amaierako Konponbidea'. Horretarako egikaritzen ari dira zigor kolektibo hain bortitza, ezen energia kenduko baitie euren eskubideak aldarrikatzeko, eta, bide batez, Gazako lurralde zati bat bereganatzeko, palestinarrik kanporatu ondoren, 1948an egin bezala.

Tentu handiz erabili behar ditugu hitzak. Izan ere, Israelen hizkera baliatzeko arriskua daukagu. Eurek diote ebakuazio plana prestatzen ari direla biztanleria ateratzeko. Ez da horrela, botatzen ari dira. Ez dira salbatzen ari, betirako kanporatzen baizik, euren tokia hartzeko.

Zisjordanian, bestalde, egoera geroz eta okerragoa da kolonoengatik.

Israelek hau kalkulatu zuten?

Egungo Gobernu israeldarraren helburua da. Izan ere, sionisten jatorrizko pentsaeran dago ukatzea herri palestinarren existentzia. Euren ideologia da, hortik dator euren lema: *Herririk gabeko lurra lurrik gabeko herriarentzat*. XIX. mendeko leloa da. Arazoa da gezurra dela. Palestina inoiz ez da izan herririk gabeko lurraldea eta israeldarrak saiatu dira errealtate bihurtzen.

1948an neurri handi batean lortu zuten, baina ez guztiz. Egungo gobernuak kideen diskurtsoa da 1948koa amaitzea. Gaza hustea eta gero Zisjordanian, euren bizitza jasangaitz eginda.

Hamaseko erasoak eman die aitzakia euren herritarren aurrean eta Mendebaldeari begira erantzun basatia egikaritzeko.

Autodefentsa eskubidea aipatzen dute, baina zigorra eta autodefentsa ez da gauza bera eta hau zigor kolektiboa da. Gainera, nazioarteko legedian, eskubide hori oso mugatua da eta ez zaio onoz aitortzen indar okupatzaileari. Okupatzaileen eskubidea ez da autodefentsa okupatuen kontra.

Horrez gain, autodefentsa esku-

elkarrizketa

bideak soilik balio du eraso gertatu bitartean. Adibidez, Ukrainian balioko luke, defendatzeko esku-bidea da. Egun ez dago erasorik Israelen kontra, zigorra da.

Hau argitu behar da propagandaren aurka.

Genozidioaren zantzuak dau-de Gazan?

Nahiko sendoak dira eta horregatik Hego Afrikak eraman du Nazioarteko Zigor Gortera. Presidenteak, Isaac Herzogek, adierazi zuen eraso hasi eta hamar egunera ez zela ezberdindu behar borrokalari eta zibilen artean, guztiak direlako errudun. Hori sarraskirako deia da.

Hainbat ministrok iradoki dute Gaza hustu eta kolonizatu behar dela. Horren argia da, ezen okerrera da Ameriketako Estatu Batuen, Alemaniaren, Frantziaren eta hamaika herrialdeen jarrerak, baimentzen ari baitira gertatzen dena. Nazio Batuen funtzionario batek azaldu zuen bistako genozidioa dela eta baldintza guztiak betetzen dituela definizio hori

“Israelgo parlamentuko ordezkari politiko gehienak eskuinekoak edo eskuin muturrekoak dira. Gauzak hala, oso zaila da pentsatzea israeldarren artean sortuko denik oposizio sendoa okupazioari”

jasotzeko. Giza laguntza ekidin dute, ondorioz, bonbekin ez ezik, gosearekin ere setiatu dute Gaza. Erdi Aroko setioa da eta munduaren aurrean gertatzen ari da, bereziki, bere burua zibilizatutzat jo duen Mendebaldeko munduaren aurrean.

Alemaniaren jarrera deigarria da.

Mendebaldeko herrialdeei maskara kendu die. Alemaniak argudiatzen du erru sentimenduak dituela, eta arrazoiak ditu, nazismoaren sorburua izan zelako. Baina gizarte moduan judutarren genozidioaren arduradun izan eta gero, orain beste bat babesten ari da, aurrekoa bezain larria. Israel ez da ari ezkututzen sarraskia, eta naziek ez zuten hori egin, saiatu ziren isilpean egiten.

Ezinezkoa da esatea gaur ez dakigula zer gertatzen ari den eta Alemaniako jarrera bereziki harri-garria da. Izandako esperientziaren ostean, sentsibilitatea izan beharko luke beste genozidio bat ez gertatzeko. Eta orain bere kon-

“Libanoko inbasioarekin konturatu nintzen Israelgo Armadaren basakeriaz. Orain ikusten ari garena lazgarria eta okerragoa da, baina aurrekariak ditu”

plizitatearekin jazotzen ari da. Erresuma Batuko jarrera ere azpimarratu behar da. Izan ere, Palestina bere kolonia zenean gertatu zen sionismoaren agerpena eta palestinarren kanporaketa. Izugarria da ikustea Erresuma Batuak Israelen alde egiten duela, amerikarrek baino gehiago.

Europak kontzientzia apur bat gehiago izan beharko luke. Palestinarrak eta arabiarrek gure ondoan bizi dira, Mediterraneoren beste aldean, alegia. Ez dira estatubatuarren bizilagunak, baizik eta gureak, eta han gertatzen dena modu batean edo bestean helduko zaigu. Hondamendiak zabaltzen dira.

Zein etorkizun du erasoak?

Ez dago baikortasunerako tarterik. Israelek burutuko du bere "Amaierako Konponbidea" ez bazaio oztoporik jartzen. Joe Bidenek esaten duena bere burua zuritzeko saiakera baino ez da. Mehatzatzea armak ez bidaltzearekin ez da eraginkorra. Eraso gertatzen ari da jadanik. Gauza



Palestinaren alde Laudio eginitako elkarretaratzeetako bat. Aiaraldea.eus

elkarrizketa

bera esan dezakegu Europari buruz. Ez bada Israel isolatzen, sarraskia gertatuko da, gertatzen ari delako.

Mendebaldeak pentsatu behar du prest ote dagoen Gazako genozidioa eta Zisjordanian gero datorrena onartzeko. Positiboena izaten ari da unibertsitateen erantzuna, debeku guztien gainetik protesta egiten ari dira gobernuen aurka. Debekua azpimarratzea oso garrantzitsua da, kanpaldi eta manifestazio baketsuak debekatzeko ari baitira. Horrek ere islatzen du gure munduko hipokrisia.

“Bi estatuen edo estatu bakarraren konponbidea mahairatu zituzten aspaldi, baina, nire ustez, gauzagarria den aukera da onena. Horretarako, kontuan hartu behar da herri palestinarren baldintzak askoz okerragoak direla”

Zein da zure ustez Palestinako herriak duen konponbidea?

Bi estatuen edo estatu bakarraren konponbidea mahairatu zituzten aspaldi, baina, nire ustez, gauzagarria den aukera da onena. Horretarako, kontuan hartu behar da herri palestinarren baldintzak askoz okerragoak direla, israeldarrek amerikarren eta europarren babesa baitute.

Abiapuntua hori izanik, bi estatuen konponbidea OLPk onartu zuen. Gogoratzen dut orduan armada israeldarra zenbait tokitik joan zela, Belenetik, adibidez. Palestinarrek pozarren ospatu zuten, uste baitzuten okupazioaren amaiera zela.

Hasiara horretan Hamas eta Askapenerako Frontea (erakunde



Palestinaren aldeko mobilizazio ugari egin dira azken asteetan Aiaraldean. Aiaraldea.eus



marxista) konponbide horren aurka zeuden, baina ezer gutxi esan zuten, herritarrak bide horren alde zeuden eta.

Zer gertatu zen orduan?

Rabin erail zuela judutar ortodoxo batek. Rabinek adostu zuen bide hori eta, geroztik, politika israeldarra bideratu dute konponbide hori sabotatzera; kolonoen presentzia biderkatuta Estatu Palestinarra eraiki behar zen lurraldean.

Ariel Sharonek lehenik eta behin eta Benjamin Netanyahu gero-

“Israelgo Gobernuaren asmoa da 1948an hasitakoa amaitzea eta Gazatik herri palestinarra kanporatzea”

go adierazi dute ez dela inoiz egongo Estatu Palestinarrik. Bere hauteskunde kanpaina 2000. urtean izan zen ez zela Estatu Palestinarrik berarekin.

Bi estatuen konponbidea esan nahi du kolonoak atera behar dira Jerusalem ekialdetik, Zisjordanian eta Gazatik, eta ez dirudi inork egingo duenik.

Beste aukera da estatu bakarra. Teorian, irtenbide demokratikoa da. Herritargoa ez litzateke erlijioan oinarritu, baizik eta estatu eta lurralde batekoa izateagatik. Horrek suposatuko luke herritar

orok izango lukeela eskubide bera, erlijioa aparte. Aldi berean, ekarriko luke palestinarren eskubide osoko herritarrak izatea eta horren eskutik etorriko litzateke judutarren gehiengo desagertzea Israelgo estatuan. Izan ere, sionismoaren erroa demokraziaren kontra da, kontrol demografikoa nahi baitu. Hori izan da beti Israelen borroka, ez ahalbidetzea hazkunde demografiko naturala, bere gehiengo kolokan jartzen baitu, palestinarren kanporatu ondoren.

Nire ustez, bi irtenbideak oso

elkarrizketa



zailak dira, baina Israelen babesa aintzat hartuta, zailagoa iruditzen zait estatu bakarrarena.

Dena den, historiak erakutsi digu plan handi guztiek arrakalak dituztela eta ezustekoak gertatzen direla. Niretzat argi dagoen gauza bakarra da, gizarte palestinarra ezagututa, Gazaren txikizioarekin ez dela amaituko borroka palestinarra. Aldi berean, uste dut Gazako sarraskiak agerian utzi duela zer den okupazio israeldarra.

Nola dago Israelgo gizartea

“Positiboena izaten ari da unibertsi-tate-en erantzuna, debeku guztien gaintetik protesta egiten ari baitira”

barrutik? Kontraesanak sortu ditu Gazako sarraskiak?

Egia da Netanyahu ahula dela, eta horrek ere azaltzen duela, besteak beste, tematuta egotea Gazako erasoan. Horrek atzeratzen du bere jarduera zalantzan jartzea. Hamasen erasoak trauma sortu du Israelgo gizartean, pentsaezina zen eurentzat. Oraindik ez dute ulertzen nola gertatu den. Trauma horrek gobernuaren kontra egiten du. Nola liteke babesgabe uztea tokia?

Dena den, horrek ez du esan nahi gizarte israeldarra aldatu

denik eta okupazioaren kontrako kontzientzia handiagoa dagoenik. Zentzu horretan, uste dut alde-antzezkoa gertatu dela. 80ko hamarkadan, Libanoren okupazioaren eta Sabra eta Xatilako sarraskien ondoren, Tel Aviven inoiz ikusitako manifestaziorik jendetsuena egon zen Libanoko okupazioaren aurka. 300.000 lagun. Hori ezinezkoa da gaur.

Gazako bonbardaketak gertatu diren bitartean, egon dira israel-darren taldeak begira eta txaloka. Israelarren %80k, antza, babes-ten dute erasoaldia Gazaren kontra.

Egia da Netanyahuren gobernuaren kontrako mobilizazioak egon direla, baina epaileen independentziaren kontra, hau da, barne aferak izan dira. Ez zegoen ikur palestinar bat bera ere.

Egun Israelgo ezkerri buruz hitz egitea zaila da, ordezkari gehienak eskuinekoak edo eskuin muturrekoak dira. Horrela, oso zaila da pentsatzea israelarren artean sortuko denik oposizio sendoa okupazioari.

Gutxiengo bat dago okupazioaren kontra, sionismoaren aurkako dena. Oso gutxi dira, baina garrantzitsuak dira gizartean. Kazetariak, historialariak, idazleak...

Gutxi eta jazartuak dira. Israelgo gizartea oso arrazista da eta faxismotik gertu.

Nola eusten dio herri palestinarrek egoera honi?

Hamarkada bat baino gehiago darama oso egoera larrian, Fatah eta herriaren arteko lotura falta baitago. Lidergoaren falta handia dute eta espero dute noizbait konpontzea. Palestinarren erresistentzia gaitasuna dator elkartzun loturengatik. Ikusi dut klase ertaineko familiak porrot ekonomikoan okupazioaren estrategiaren ondorioz, baina inoiz ez umeak kalean abandonaturik, ezta Gazan ere.

Horrek esan nahi du inoiz ez zaudela guztiz alboratuta. Etxea txikitzen badizute, lehengusuek irekiko dizute berea, eta bestela, auzikideek. Hori da gakoa. Oinarri familiarra dauka, baina ez soilik senideen artekoa, auzokideen sareak ere badaude okupazioaren basakeriei aurre egiteko. Hori da okupazioak suntsitu nahi duen zerbait.

Hesiaren zentzua da ez horrenbeste Israel eta herri palestinarra banatzea, baizik eta palestinarren arteak oztupoak jartzea. Emakume bat Ramalahn jaio bada eta Jeninen ezkontzen bada, agian ez du bere familia inoiz ikusiko berriz. Berrogei kilometro baino ez dau-

de, baina bitartean hainbar kontrol militar daude, pasabide oso gutxi eta gehienetan itxita.

Adibide bat jarriko dizut. Bada-go Zisjordanian toki bat, Kalkilia. Oso leku oparoa da garia landatzeko. Han israelarren hesiak banatzen ditu jabeak eta lursailak. Lurra lantzeko, jabeek oso ordu gutxi dituzte hesia zeharkatzeko, eta ez dute beti irekitzen. Nekazariak ezin dituzte lanabesak eraman, bakarrik joan behar dira eta, lurra ez badute baliatzen, israelarrek kendu diezaiekete jabea. Hori da okupazioa, hori gertatzen da, ustez, ezer gertatzen ez denean.

“Manifestazioak, kanpainak, zigor eskaerak... egin behar dira. Israelek ez du politika aldatuko zigorrik ez badu jasotzen. Israel aldatzeko gakoa kanpoan dago, ez Israel barruan”

Hemendik zer egin daiteke?

Herri palestinarra babestu. Palestinarrek beti eskatzen digute kazetariari kontaketa zer gertatzen zaien. Horregatik, manifestazioak, kanpainak, zigor eskaerak... egin behar dira. Israelek ez du politika aldatuko zigorrik ez badu jasotzen. Israel aldatzeko gakoa kanpoan dago, ez Israel barruan.

Elkartasun uholdea dago orain herri palestinarrekiko, zer suposatzen du horrek zuretzat?

Morala igotzen du. Urte luze hauetan Palestinako egoera ahaztuta egon da. Orain hedabideetan egotea garrantzitsua da. Gazteen inplikazioa ere garrantzitsua da eta niri pertsonalki animoa ematen dit ikur palestinarrek ikustea etxeetan. Euskal harrotasuna pizten dit, beste leku batzuetan ez da horren arrunta. Nik nabaritzen dut interesa.

herriz herri

Aiara

Epaileak urtebete eta sei hilabeteko espetxe zigorra eta 30.000 euroko kalte-ordaina ematea ezarri die Murgako enpresako bi arduradunei.

Zorroza Gestión de Residuos enpresako arduradunek onartu dute Bassirou Dioneren gorpua mugitu zutela, lan heriotza ezkutatzeko

Testua **Aimar Gutierrez Bidarte**

Maiatzaren 8an eseri ziren epaile aurrean Zorroza Gestión de Residuos enpresako arduradunak, lau urte baino gehiago igaro direnean 2020ko otsailean Bassirou Dione langileak bizia galdu zuenetik. Gertatutakoa argitzea helburu zuen epaiketaren, akusazio partikularren eta defentsaren arteko akordioarekin bukatu zen: akusatuek delituak onartu dituzte eta urtebete eta sei hilabeteko espetxe zigorra jaso dute, Dioneren senideei 30.000 euroko kalte ordaina emateko agindua erekin batera.

Epaiketaren beharrik gabe onartu dute bi akusatuek Bassirou Dioneren gorpua mugitu zutela zortzi metroko altueratik amildu ostean, gertatutakoa estaltzeko asmoz. Epaileak sei hilabeteko espetxe zigorra ezarri die bi akusatuei langileen segurtasunaren aurkako delituagatik, eta urtebeteko espetxe zigorra zuhurtziagabekeria larriko giza hilketagatik. Gauzak horrela, ez dira espetxean sartuko ugazaba eta arduraduna. Halaber, akordioan jasotakoaren arabera, 30.000 euroko kalte-ordaina eman beharko diote Bassirou Dioneren familiari.

Sententziak frogatutzat jotzen du Zorroza Gestión de Residuoseko arduradunek ez zizkiotela Dioneri beharrezko segurtasun neurriak eman, eta horrek eragin zuela bere heriotza.

Aurrekariak

Bassirou Dione 24 urteko gaztea 2020ko otsailaren 24an zendu zen Murgako industriagunean kokatutako Zorroza Gestión de Residuos enpresan, zortzi metroko altueratik amilduta.

Hasieratik argi-ilunez inguratutako heriotza izan zen jatorri senegaldarreko beharginarena. Honda-

kinen kudeaketaz arduratzen zen enpresa lan-baldintza eta tratu txarrerengatik ezaguna zen, eta gertatutakoak berehala piztu zituen susmoak eskualdean.

Otsailaren 24an, astelehena, 17:30ean jaso zuten abisua larrialdi-zerbitzuek, baina enpresa inguruan zeuden lekukoek ez zuten aparteko mugimendurik ikusi une horretan. Bai, ordea, astelehenetik astearteko gauean: istripua gertatu ostean Zorroza Gestión de Residuos pabiloiko zaborra ateratzen aritu ziren langileak bertako kamioiak baliatuta, eta otsailaren 25ean Ertzaintza eta Osalan agertu zirenerako ingurua guztiz garbi aurkitu zuten.

Foku guztiak zaborren kudeaketa enpresaren gainean zeudela, Osalanez txostena plazaratu zuen eta en-

presako arduradunek larrialdi-zerbitzuei emandako hasierako bertsioa gezurtatu zuten.

Bassirou Dione 8,7 metroko altueratik amildu zen. Dionez astebe-terez zeraman lanean Zorroza Gestión de Residuos enpresan, eta eskuko eskailera batera igota teilatuko hainbat elementu konpontzen zebilen beste bi lankiderek batera, beharrezko segurtasun neurriak eta formakuntzarik gabe.

Osalanek datu argigarri gehiago plazaratu zituen txostenean eta iradoki zuen hainbat elementu aldatu zituztela istripua gertatu zen tokian, ez beharra jazo ostean.

Mobilizazioa lantegian

Iragan astean egin zuten epaiketaren emaitza salatzen elkarretara-



Epaiketaren emaitza salatzen elkarretaratzea egin zuten iragan astean lantegiaren sarreran. [Aiaraldea.eus](https://aiaraldea.eus)

Sententziak frogatutzat jotzen du Zorroza Gestión de Residuoseko arduradunek ez zizkiotela Dioneri beharrezko segurtasun neurriak eman eta horrek eragin zuela bere heriotza

tzea Murgako lantegiaren aurrean. Bertaratutako herritarrek salatuzten sistema honetan “merke” ateratzen dela langileen aurkako esplotazioa, eta “are merkeagoa” ateratzen dela “langilea kanpotik bizitza hobearren bila etorritakoa bada”.

Era berean, aldarrikatu zuten Zorrozako lan heriotza “langile migra-tuen esplotazioarekin aberasten den sistema kapitalista kolonialaren” ondoriozkoa izan dela, eta badituela “arduradun politikoak”.

Horri lotuta, Atzerritartasun Legea bertan behera uztea exijitu zuten enpresaren aurrean eginiko elkarretaratzean, “funtsezko baldintza delako Aiaraaldeko bizilagun guz-tiek, datozen lekutik datozela, modu duinean lan, ikasi eta bizi ahal izan dezaten”.

Amurrio

Zaintzen III. Foroa egingo du Emakumeon* Sareak, Udalarekin abiatutako negoziazio mahaia ardatz



Udalak luzatutako proposamena izango dute eztabaidagai Zaintzen III. Foroan. Aiaraldea.eus

Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

Azaroaren 30eko Greba Feminista Orokorreko aldarrikapenak ekintzetara lurreratzeko ahaleaginean dabil Amurrioko Emakumeon* Sarea azken hilabeteetan. Bide horretan, Amurrioko Udalarekin zaintzen inguruko negoziazio mahaia zabaltzea lortu dute, eta bertatik jasotako lehen fruituak izango dituzte eztabaidagai nagusi maiatzaren 31n egingo duten Zaintzen III. Foroan.

Emakume sarearen ahaleginari esker, Amurrioko Udalak konpromisoa hartu du udalerriko zaintzarako baliabideen gaineko plan bat plazaratzeko.

Honezkero, jaso dute lehen proposamena, "oraindik zehaztasun gutxi dituen arren". Plan horretan, zaintzarako baliabideen eta zaintza sektorearen gaineko diagnostikoa osatu eta bitartekoak indartzeko neurriak proposatuko ditu tokiko erakundeak, betiere Amurrioko Emakumeon* Sarearen gidaritza eta oniritziarekin.

Zaintzarako Amurrion dauden baliabideak publikatzea eta bertako langileen egoera duintzea ditu lan lerro eta kezka nagusi Amurrioko Emakumeon* Sareak: "Gure ustez, erabat feminizatua dagoen sektorea duintzeko, bertako lan-baldintzak hobetzeko eta erabiltzaileek jasotzen duten arretaren kalitatea bermatze-

ko publikazioa da estrategia eraginkor bakarra".

Hain zuzen ere, etxebizitza-komunitario bat eta Eguneko Arretarako Landa Zentroa dira baliabide horiek. Azpiegiturak Udalarenak dira, baina kudeaketa pribatua da. "Eskatzen dugun lehenengo gauza zera da: baliabide horien kudeaketarako lizitazioa sortzen dutenean, lan-baldintzen gainean fokua jartzea eta baldintza onak exijitzea".

Udalaren partetik jasotako planaren lehen zirriborroaren gainean begirada zorroztea eta ekarpenak egitea izango da hilaren 31ko zitaren helburu nagusia. Guk pasealekuan jarri dute eztabaidarako hitzordua, 18:00etan.

Arrankudiaga-Zollo

Udaltaldeko egoitza beteta Fermin Arandia Basterra eusko gudaria omentzeko



Jendez gainezko egon zen lokala ekitaldian. **Arandia sendia**

Testua
Aitor Aspuru Saez

Fermin Arandia Basterra eusko gudariaren heriotzaren 85. urteurrenean, senideek bere memoria berpiztu nahi izan dute. Horretarako, omenaldia egin zioten iragan igandean Udaltalde lokalean.

Berez, familiak berak hartu du egitasmoa antolatzearen ardura. 12:30ean hasi zuten ekitaldia 50 lagunengatik aurrean, Arandiaren bederatzi ilobak eta euren zortzi seme-alabak tartean.

Gero, gudariaren senideek eurek jo zuten *L'estaca* eta *Gure zaharra* abestiak. Ondoren, Txutxi Ariznabarreta alkateak hartu zuen hitza herritarren ekimena gozatzeko.

Horren ostean, hildako borrokalariaren bi ilobek bere bizitzaren aurkezpena egin zuten bi hizkuntzetan, euskaraz eta gaztelaraz, eta Bitoriano Gandiagaren olerki bat irakurri zuten jarraian.

Orduan, bere ilobek bi pasadizo ekarri zituzten gogora. Alde batetik, Serafinek kontatu zuen Ferminen anai batek Bartzelonara jo zuela txirrindulaz bere hilobia bisitatzera, eta han bizikleta lapurtu ziotela. Mari Carmenek, aldiz, oroitu zuen eurak ere Bartzelonara joan zirela eta etxeko arrosak eraman zituztela, bere aitak horrela eskatuta.

Amaitzeko, lore eskaintza egin zuten eta aureskua eskaini zioten, *Txoriak txori* abestearrekin batera.

herriz herri

Urduña

Otxomaioetako ekintzen %31,14a izan da euskara hutsez edo nagusiki euskaraz, Udalaren arabera

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Aurtengo Otxomaio jaietan eginiko ekintzen %31,14 izan da euskaraz hutsez edo nagusiki euskaraz. Hori ondorioztatu daiteke Udalak eginiko sailkapena ikusita. Tokiko erakundeak bat egin du Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluaren Euskararen Semaforoa tresnarekin, eta egitasmo

horren irizpideen arabera sailkatu ditu egitarauko jarduerak.

Udalak 61 ekintza mailakatu ditu guztira hizkuntza irizpideak jarraituta, programan jasotazeuden ia guztiak. Jarduera bakan batzuk utzi ditu zenbaketatik kanpo, hizkuntzaren arabera sailkatzeko zailak direlako (buruhandien kalejira edota saskibalo partiduak kasu).

Zenbateka horren arabera, jar-

dueren %22,9 izan da erdaraz, eta egitarau osoaren %40,9 elebiduna izan da.

Euskararen Semaforotik harago ere, zeresana eman dute otxomaioek. Festen lehen aste-buruaren ostean, oharra plazaratu zuen Euskalgintza Kontseiluak, Bihotza Konpartsaren txosnak hizkuntza irizpideak urratzen ari zela salatu eta Udalari neurriak hartzea eskatzeko.

Orozko

Hamalau konpromiso sinatu ditu Orozkoko alkateak euskararen normalizazioa bultzatzeko



Orozkoko Udal Gobernuako kideak, Udalbatzaren osaketaren egunean.

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Urrats bat aurrera eman du Orozkoko Udal Gobernuak euskararen normalizazioan, esparru horri lotutako hamalau konpromiso zehatz sinatu baititu Aitor Iza alkateak. "Pauso honek, udal hizkuntza politikaz jarduteko, hartutako konpromisoen jarraipena egiteko eta udal mailan hizkuntza eskubi-deak babesteko dituen protokoloa sortzeko mahai bat eratzea ekarriko du", nabarmendu du Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluak.

Eragile horrek konpromiso sorta aurkeztu zien 2023ko Udal Hauteskundeetara aurkeztu ziren hautagaiei, *Bai We Can* kanpainaren barruan. Konpromiso horiek dira orain Orozkoko alkateak sinatutakoak. Adostasun zabala izan du erabakiak,

EH Bilduk iazko hauteskunde kanpaina bertan sinatu baitzuen Kontseiluaren proposamena.

Euskara protokoloa helburu

Konpromisoak hartuta, horiek egikaritzeari ekingo diote legegaldi honetan. Protokoloa sortzeko, mahai beraren bultzatan eseriko dira Udaleko bi alderdietako ordezkariak, euskara zinegotzia, euskara teknikaria eta Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluko kideak. Horrez gain, Manex Mantxolak ere parte hartuko du prozesuan, Euskal Herriko Euskalgintzaren Kontseiluko koordinatzaileak.

Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluak oso positiboki baloratu du Orozkoko Udal Gobernuak emandako urratsa, eta nabarmendu du azken honekin bost direla ekimenarekin bat egin duten Aiaraldeko udalak.

FAKTORIA JAIA

3. Wite
AIRE RATU

Maiatzak 25
Urteurren jaia

18:30 Herriko plazatik, kalejira musikatua
20:00 Faktorian, parrillada (doan)
22:00 Kontzertua,

Anari

Sarrerak salgai faktoria.eus-en:
13€ bazkideak // 15€ ez bazkideak.

FAKTORIA

© Errotari kalea, 4-8 pabilloia, Laudio (Araba)
☎ 688 64 79 42 • ✉ faktoria@aiaraldea.eus

© www.faktoria.eus

**QUICK PC
REPAIR**



Informatika argi eta erraz

**ETXEZ
ETXEKO
ZERBITZUA
gainkosturik
gabe**

· Salmenta · Konponketak

· Informatika-ekipamenduen eta STen inguruko prestakuntza ematen dugu negozio eta etxeetarako

· Bezeroaren premietara egokitutako fakturen eta tiketen diseinua, eta kudeaketa-programen diseinua

Galdetu PC eta ordenagailu eramangarrien **REMOVE PLANARI** buruz

Dionisio Aldama 2, AMURRIO · 685 70 19 56 · 945 03 48 12
www.quickpcrepair.es · quickpcrepair@quickpcrepair.es

Urduña

Ez dago moja klaratarrik Urduñan

Testua
Aitor Aspuru Saez

Beloradoko moja klaratarren egoera hedabide nagusien denborapasa bilakatu da azken egunetan. Eliza utziko zutela adierazi zutenetik, Eliza Katolikoarekin duten gatazka egunkari eta telebista saioen eztabaidagaia bilakatu da, morborako eta bitxikeriarako tartea eskaintzen baitu.

Baina, eskualdeari dagokionez, zein neurrian eragiten du polemikak? Aiaraldea Komunikabideari urduñarrek eurek azaldu diotenez, berez, moja klaratarrik ez dago komentuan pasa den astetik. Berez, bat-batean iragarri zuten ez zela egongo elizkizunik eta Beloradora jo zuten Urduñan zeudenek.

Ezustean hartutako erabakia arraroa egin zitzaien elizkizunetara joaten ziren dozena bat herritarrei, bereziki, Gabonetan edo Aste Santuan baino ez zutelako uzten tokia.

Geroztik, ez da jarduerarik egin komentuan, baina hedabideak albiste bete dira. Izan ere, asteartean

zabaldu zen mojek Eliza Katolikoren zilegitasuna ukatu eta eskuin muturreko sekta batera batu zirela. Egunez egun, orden horren buruaren ideia atzerakoiengatik agertu dira: Francoren jarraitzaile dela, holokaustoa zalantzan jartzen duela edota COVID-19 txertoen kontrakoa dela.

Albiste uholdea harriduraz hartu dute urduñarrek. Izan ere, duela ia bost urte komentura heldu zirenetik, laguntza ugari jaso dute. Aiaraldea Komunikabidea Juanjo Sanz aurreko legegaldiko obra zinegotziarekin jarri da harremanetan eta honakoa azaldu du berak: "hemezortzi urtez hutsik egon ondoren, herriak nahizuen komentua biziberri-tzea eta horregatik Udalak askotan lagundu zituen mojak. Behar baino gehiago, agian. Herritarrek ere ekarpen handiak egin dituzte eta auzolanak antolatu zituzten".

Aintzat hartuta Gasteizko Elizbarrutiak salerosketa kontratua ezer ezean utzi duela klaratar zismatikoekin, zaila izango da erlijioso horiek Urduñara itzultzea.



Iragan astean mojek eginiko eta sare sozialen bidez zabaldutako selfiea.



Idiomas

FUNDACIÓN *Vital* FUNDAZIOA

Ikasturte
osoa:

660€

50 urtetik gorako esperientzia
Cambridgeko azterketak
prestatzeko zentroa



Motorren kontzentrazio batekin itzuliko da Aefat Jaialdia Urdumñara

Maiatzaren 31n eta ekainaren 1ean ospatuko dute Urdumñako Aefat Jaialdiaren II. edizioa. Due-la bi urte antolatuta zuten ekimena lehendabizikoz, Ataxia-Telangiektasia gaixotasun arraroaren kon-trako ikerketarako dirua biltzeko asmoz.

II. edizioko berritasun nagusia ekainaren 1ean egingo duten motorren kontzentrazioa izango da. Iragan otsailaren 29tik dago zabalik bertan parte hartzeko izen ematea, eta inskripzioarekin bate-ra, zapi oroigarria eta paella jana jasoko dute mo-tor-zaleek. Horrez gain, motorren aparkalekuzain-

dua edota aterpean lo egiteko aukera ere eskaini-ko du antolakuntzak, arratsalde eta iluntzeko egi-tarauaz gozatzeko ere.

Bestelako hamaika ekintzek ere osatuko dute jaialdiko egitaraua: Zumba, haurrentzako jolasak, buruhandiak... Askok dira ere antolakuntzan lagun-duko duten talde eta eragileak: Izaaskun del Cerro, Erauntsi Dantza Taldea, Getxa Goi Txistu Taldea, Bihotza Kompartsa, Urdumñako ibilgailu klasikoan elkartea, El Pilón, Loraldi Elkartea, Marmitaren Elkartea, Nafarroa Kanta, Batture Batukada, Ur-

duñako Korala eta Santa Zezilia Banda beste as-koren artean.

Lehen edizioan bezala, musika eskaintza zabala izango du jaialdiak larunbatean. Oholtza gainerik Mario Malatesta eta la Excavadora bandak igaro-ko dira, Bon Scott Revival Show taldearekin bate-ra; azken hau AC/DC bandaren bertsoak egiten di-tuen talde ezaguna da. Jai-giroa luzatzearen ardu-ra, ordea, Urdumñako artista batena izango da. Ele-na Barker Synthetika kolektiboko kidearen musi-ka elektronikoa itxiko du Aefat jaialdia.

MUSIKA

05.24 Ostimala
20:00 URDUÑA
PIANO TAUPADAK
Alondegia

05.24 Ostimala
21:00 LAUDIO
SUBTERRANEAN ETA
FLY SHIT
Sarrerak: 8/10 euro
(www.hfmcnrew.cat)
Sorgin taberna

05.25 Larumbata
17:30 LAUDIO
SUBRATS, ECUACION
ANTIVIDA, DISASKO,
ETXANDO PESTES, DEP,
AKAINAK, PIKETA, RAS,
MUTILATED JUDGE
Orbeko Etxea

05.25 Larumbata
20:00 ARTZINIEGA
SERGIO GOMEZ: KANTU
ERROMANTIKOAK
Artziniegako XVIII.
Kontzertu Zikloaren baitan
antolatutako emanaldia
Arteko Gure Amaren
Santutegia

05.26 Igandea
19:00 LAUDIO
LAUDIOKO MUSIKA
BANDAREN KONTZERTUA
Lamuzako San Pedro eliza

05.31 Ostimala
23:59-6:00 LAUDIO
IZERDI GAUA
Oke, Bendiak eta Jabitxuren
musika elektronikoa saioa
Sorgin taberna

06.02 Igandea
13:00 ARTZINIEGA
TRIHOTZ
Artziniegako XVIII.
Kontzertu Zikloaren baitan
antolatutako emanaldia
Arteko Gure Amaren
Santutegia

FAMILIA JARDUERAK

05.26 Igandea
ARRANKUDIAGA
11:00 // Erreka garbitzeko
auzolana
16:00 eta 17:15 // Zeramika
tailerra
Plazan eta Gizarte Etxea

05.31 Ostimala
17:00 LAUDIO
EKONOMIA SOZIAL
ERALDATZAILA
AIARALDEAN:
FORMAKUNTZA ZIKLOA
Doan
Faktoria

05.31 Ostimala
17:30 ARETA
LODIFOBIARI BURUZKO
TAILERRA
Kultura Etxea

06.03 Astelehena
17:00 AMURRIO
ZEINU HIZKUNTZA
IKASTAROA
Ikastaroaren hurrengo saioak
ekainaren 10, 17 eta 24an
izango dira. Parte hartzeko
beharrezkoa da maiatzaren
29a baino lehen izena ematea
677 566 289 telefonoan
Kultura Etxea

BESTELAKO JARDUERAK

05.24 Ostimala
20:00 AMURRIO
AMURRIO HARRO:
BILBOKO GAYLESBITRANS
ZINEMA JAIALDIAREN
ERAKUSTALDIA
Sarrera librea eserleku
guztiak bete arte
Amurrio Antzokia

05.24 Ostimala
20:00 ZOLLO
ANE LINDANEREN
BAKARRIZKETA
Bolatokia

05.25 Larumbata
LAUDIO
LAUDIO IKASTOLAREN JAIA
Ludio Ikastola

05.25 Larumbata
10:00 OROZKO
BIZKAIKO I. AZPIGORRI
TXAPELKETA
Herrigunea

05.25 Larumbata
ANES
ANESEKO JAIAK
18:00 // Kanpai hotsa eta
suziri jaurtiketa
18:30 // Gaztelu puzgarria
19:00 // Haurrentzako
makillajea
19:30 // Ginkana
21:00 // El Secreto D Ja
Herrigunea

Hockey komunitatea batzeko zita



Hockey Egunaren XI. edizioa ospatuko dute ekainaren 1ean Gardean. Urtero bezala, Laudioko zein eskualdeko hockey komunitatea batzea izango da ekimenaren xede nagusia, eta egun osoko egitaraua prestatu dute horretarako. Haur zein gazteentzako jolasak, partidak edota helduentzako masterclassak egingo dituzte 10:30etik 18:00etara. 15:00etan, aldiz, herri bazkaria egingo dute.

Sei kontzertu eskainiko ditu Artziniiegako Mendietakultura Elkarteak




Artziniiegako VIII. kontzertu zikloa antolatuko du Mendietakultura Elkarteak. Maiatzaren 31tik uztailaren 12ra luzatuko da ekimena, eta sei emanaldi eskainiko dituzte guztira.

Arteko Gure Ama Santutegian edota komentuko patioan izango dira emanaldiak. Maiatzaren 3In Sergio Gomezek joko du, ekainaren 2an Trihotz bikoteak, 14an Oñati-ko Gambara Abesbatzak, 22an Entrebescant taldeak, 28an All'antica, grand tour emanal-

dia egingo da eta uztailaren 12an Cuarteto Iberiak itxiko du programa. Sarrereren prezioa 7 eurokoa izango da, baina aukera egongo da saio guztietarako abonua eskuratze-ko, 35 euroren truke. Mendietakultura.com atarian eskuratu daitezke sarrerak eta baita emanaldi guztietarako buruzko informazioa ere.

Mendietakultura Elkarteak 2014an sortu zen, Artziniiegako izen bereko auzoko Santotomasek elizaren musikaz zentro bat atontzeko helburuarekin.


Kartelera



AMURRIO ANTZOKIA
Zinegoak
MAIATZAK 24
OSTEGUNA
Doan
20:00



AMURRIO ANTZOKIA
Go!azen
MAIATZAK 26
LARUNBATA
(16-18 euro aurretik eta 20-22 euro takillan)
17:00/19:00



AMURRIO ANTZOKIA
Nina
MAIATZAK 26, 27
IGANDEA ETA ASTELEHENA
(5 / 3,75 euro)
19:00



AMURRIO ANTZOKIA
Atxine
MAIATZAK 31
OSTIRALA
(8 euro)
20:00

JARDUERAK

05.25 Larumbata
8:00 ARTZINIIEGA
UNTZILLAITZERA IRTEERA
Izena emateko azken eguna malatzaren 23a izango da. Mezua bidali behar da ganzorrotz@gmail.com helbidera
Toñin Luengas frontoia

05.26 Igandea
10:20-14:00 LAUDIO
10K LASTERKETA
Zumalakarregi etorbidea

05.31 Ostirala
10:00 AMURRIO
TTIPI-TTAPA AMURRIO: IBILALDI PARTEKATUAK
Doako jarduera da eta ez da aurretik izena eman behar
Juan Urrutia plaza

06.02 Larumbata
8:00 ARRANKUDIAGA-ZOLLO
MATXINKORTA MENDI TALDEAREN IRTEERA: VIA FERRATA
Informazio gehiago Matxinkorta menditaldearen Facebookean edo matxinkorta@gmail.com helbidean

06.05 Asteazkena
17:00 AMURRIO
EMAKUMEZKOEN FUTBOLA: ATE IREKIAK
Refor enpresaldea

HITZALDIAK ETA TAILERRAK

05.24 Ostirala
17:30 ARETA
LODIFOBIARI BURUZKO TAILERRA
Laura Galaren eskutik
Kultura Etxea

05.27 Astelehena
17:30 OROZKO
SEXU HEZIKETA: PORNOTIK HARAGO
Diana Ibagutxiren eskutik
Gaztetxoko zaharra

05.27 Astelehena
17:30 AMURRIO
KOMUNITATE GORRA, HIZKUNTZA ETA ERREALITATE EZEZAGUNAK
Kultura Etxea

05.29 Asteazkena
18:30 AMURRIO
INTERSEXUALITATEARI BURUZKO SOLASALDIA
Mer Gomezekin
Amurrioko Liburutegian

05.25 Larumbata
LAUDIO
FAKTORIAREN III. URTEURREN FESTA
18:30 // Kalejira musikatua herriko plazatik
20:00 // Parrillada Faktorian, doan
22:00 // Anariren kontzertua. Sarrerak salgai Faktoria.eus atarian
Faktoria

05.26 Igandea
ANES
ANESEKO JAIAK
12:00 // Meza
13:00 // Luntxa
Herrigunea

05.26 Igandea
LAUDIO
ERMUALDEKO JAIAK
9:30 // Ermualdeko ibilaldi gidatua Herriko plazatik
10:30 // Ekin Joleak txistu taldea
11:30 // Meza
12:30 // Parrillada
Basalarrinaren eskutik
12:30-15:00 // Erromeria Joxe Mendizabalen eskutik
Ermualde

05.26 Igandea
11:00-14:00 LAUDIO
BIDEZKO MERKATARITZAREN NAZIOARTEKO EGUNA
Herriko plaza

05.27 Astelehena
LAUDIO
ERMUALDEKO JAIAK
11:00 // Txokolate jana
11:30 // Tailerrak eta jolasak Kirikiñoren eskutik
11:30 // Meza
12:30-15:00 // Diskodantza DMA taldearen eskutik
Ermualde

05.28 Asteartea
11:00 OROZKO
ZINEGOAK JAIALDIKO FILM LABURREN EMANALDIA
Lehen Hezkuntzako 5 eta 6. mailako ikasleentzat
Donibane Aretoa

05.29 Asteazkena
11:30 OROZKO
BURUA TXORIZ BETETA
Antzerki emanaldia lehen Hezkuntzako 5 eta 6. mailako ikasleentzat
Donibane Aretoa

INFO +
aiaraldea.eus

kultura

“Probatzen ari gara ea non dauden gure buruak eroso”



MADDALEN ARTETXE, ENKO ALBIZUA, BEÑAT ORTIZ DE LUNA ETA GALDER ALBIZUA **BELGORRI** TALDEKO KIDEAK DIRA, JONA MORILLO ETA LUKEN ALAVAREKIN BATERA. PLAZARATU BERRI DUTEN HIRU ABESTIKO LANARI BURUZ MINTZATU DIRA.



Testua **Aitor Aspuru Saez**
Argazkia **Nala Vallejo Torres**

Zein izan da argitaratu duzuen lan berria?

Eneko Albizua: Hiru abestiko EP bat argitaratu dugu eta plataforma guztietan dago eskura. Youtube, Spotify...

Maddalen Artetxe: Aukera hau agertu zitzaigun badaukagulako lagun bat produkzio modulua ikasten. Proposatu zigun maketa bat grabatzea eta modu nahiko inprobisatuan egin dugu.

Beñat Ortiz de Luna: Lehenik eta behin, grabatu genuen Erandion, abeslariak zein musikariak bakarka. Gero Amurrión nahastu genuen.

Eneko Albizua: Erandion musika produkzio modulua ikasten ari diren bi mutilekin egin genuen, Julen eta Gaizkarekin. Gero Tejek, gure lagun baten aitak egin zuen nahasketa eta masterizazioa.

Galder Albizua: Gainera, Cuatro Bancos-eko kideei eman behar dizkiegu eskerrak. Jona (bateria-jotzailea) eta biok ezin ginen joan grabaketara eta eurek jo zuten gure ordez.

Abesti gehiagorekin diskoa argitaratu nahi duzue, ezta?

G.A.: Baditugu abesti gehiago, baina esan bezala, Jonak eta biok ezin genituen grabatu. Hortaz, gure ideia, printzipioz, bada falta direnak grabatzea eta gero denak batera disko bakarrean argitaratzea plataformetan.

Zein musika generoan kokatzen dituzue zuen kantak?

B.O.L.: Galdera ona da, asko pentsatu dugu zer erantzun.

G.A.: Rocka da oinarria.

B.O.L.: Batzuk dira akustikoak eta badaude metal soinu dutenak.

M.A.: Gainera, orain sortzen ari garen abesti bati reggae kutsua ematen saiatzen ari gara. Probatzen ari gara ea non dauden gure buruak eroso.

Bilatzen ari zarete oraindik?

G.A.: Azkenean, ez dugu genero bakarrera mugatu nahi. Rock edo punk taldea izateak ez dizu uzten nahi duzuna egiten. Askatasuna nahi dugu gogoko duguna egiteko.

Zuen eraginaren unibertsoa zein da?

E.A.: Bakoitzak dauka berea. Nik gogoko ditut Bob Marley edota Dire Straits.

B.O.L.: Nire erreferenteak dira Kortatu, Hertzainak, The Clash, Specials...

G.A.: Abestia sortzean bakoitzak esaten du: "niri riff hau bururatu zait". Jotzen du eta horren gainean bakoitzak dituen erreferenteekin joaten gara puzzlea sortzen. Bakoitzak bere gustuak ditu eta handik ateratzen ditu ideiak.

Zuen letra guztiak, momentuz, euskaraz dira.

M.A.: Printzipioz, Lukenek (beste abeslariak) eta biok konposatzen ditugu. Gitarra-jotzaileak ere askotan sortzen duenez, ateratzen ditu bere zatiak eta aldatzen ditugu, edo ez. Adibidez, *Neguko otsoak* Luken eta biok par-

kean aspertuta geundelarik agertu zen. Atera genuen sentitzen genuena eta ez daukagu mezu zehatzik zabaltzeko.

G.A.: Abesti hori da, gerora, jendeari gehien gustatu zaiona.

Nola batu zarete?

G.A.: Denok ikasi dugu musika eskolan.

B.O.L.: Joan izan ezik.

G.A.: Baina bere aita Luis Vil da, badauka eragina etxean.

M.A.: Horrez gain, guztiok gara kuadrillakoak, Galder izan ezik.

G.A.: Enekoren anaia naiz, eta kontzertu baterako behar zuten baxu-jotzailea, proposatu zidaten jotzea. Azkenean, geratu naiz.

Zuen entsegu lokala Amurrioko Gaztetxean dago?

G.A.: Bai, gela txiki bat daukagu eta han dago bateria finkoa eta etxetik eramandako tresnak. Astean behin edo bitan elkartzeko gara, batzuek kanpoan ikasten baitute. Ondo moldatzen gara.

Udan kontzertuak dituzue?

M.A.: Euskal Jaian jo ostean, kamio baten gainean, San Joanetan asteburu musikatua dago eta han egongo gara. Hainbat tabernetan jotzen dute taldeek. Gure kasuan, kontzertu akustikoa egingo dugu Txokogorri.

G.A.: Zuzenekoetan joko ditugu grabatutako hiru abestiak, diskoan sartu nahi ditugun beste zortziak eta sortu berri ditugun beste bi.

babestutako edukia

Udaberria

FAKTORIAN



MAIATZA



24, barikua
18:00 - Faktorian
AURKEZPEN TERTULIA/
**KULTURARTEKO-
TASUN FAMILIAK**
DOAN
#KULTURARTEKOTASUNA



25, zapatua
**FAKTORIAREN
URTEURRENA**
18:30 - Herriko plazatik
KALEJIRA MUSIKATUA
20:00 - Faktorian
PARRILLADA (DOAN)
22:00 - Faktorian
ANARI
#BIZITZEKOFAKTORIA
#AMESTEKO FAKTORIA



31, barikua
17:00-20:00 - Faktorian
FORMAZIO JARDUNALDIAK/
**EKONOMIA SOZIAL
ERALDATZAILEA
AIARALDEAN**
3^a SAIOA
DOAN
#EKONOMIASOZIALERALDATZAILEA



08, zapatua
10:00 - Faktorian
TAILERRA/
**SAGARRA
HAMAIKA ERATAN**
OLATXUKO LABOREAK
BAZKIDEAK 20€/
EZ-BAZKIDEAK 25€
#ELIKADURABURUJABETZA



08, zapatua
18:00 - Faktorian
GAZTE GAZTEAK/
**NERABEENTZAKO
MAHAI JOLASEN
TOPAKETA**
DOAN
#AISIALDIA




09, domeka
11:00-13:00 - Faktorian
**0-3 URTEKO
HAURRENTZAKO
JOLAS LIBRERAKO
ESPASIOA**
BAZKIDEAK 5€/
EZ-BAZKIDEAK 6€
#JOLASLIBREA
#0-3ESPASIOA




14, barikua
17:00-20:00 - Faktorian
FORMAZIO JARDUNALDIAK/
**EKONOMIA SOZIAL
ERALDATZAILEA
AIARALDEAN**
4^a SAIOA
DOAN
#EKONOMIASOZIALERALDATZAILEA



14, barikua
19:00 - Faktorian
BERBALDIA/
**FEMINISMOA,
KULTURGINTZA ETA
EUSKALGINTZA
ELKARREN
ESKUTIK**
DOAN
#FEMINISMOA
#BORBORSOLASALDIAK



15, zapatua
11:00 - Faktorian
ESPERIMENTAZIO SAIOA/
**FAKTORIA
KOLOREZ
BETETZEKO**
BAZKIDEAK 5€/
EZ-BAZKIDEAK 6€
#FAMILIAK
#ESPERIMENTAZIOA
#BIZITZAJOLASA



18, martitzena
17:30 - Faktorian
EMANALDIA/
BISITA MUSEOAN
LAUDIO IKASTOLAKO
GAZTEEN ANTZERKI TALDEA
DOAN
#ANTZERKIA
#IKASTOLAKOANTZERKITALDEA



19, eguaztena
17:30 - Faktorian
EMANALDIA/
ASKA GAITEZEN
LAUDIO IKASTOLAKO
GAZTEEN ANTZERKI TALDEA
DOAN
#ANTZERKIA
#IKASTOLAKOANTZERKITALDEA



20, eguena
19:00 - Faktorian
TAILERRA/
**NOLA ESKUHARTU
INDARKERIA
MATXISTAREN
KASUAK UDALEKU
EDO AISIALDI
GUNEETAN**
DOAN
#FEMINISMOA
#BORBORSOLASALDIAK

EKAINA



07, barikua
20:00 - Faktorian
KONTZERTUA/
EZ DOK BAPE
BORONDATE TRUKEAN
#MUSIKA



www.faktoria.eus

AIARALDEA EKINTZEN
**FAK-
TO-
RIA**

+PROGRAMAZIO GEHIAGO!

WEBGUNEAN/SARE SOZIALETAN
EKITALDI BERRIEN JARRAIPENA
EGITEKO AUKERA DUZU.

kirola

Ehiza Bilaketan Europako Txapeldun



Jesus Balado amurriarraren txakurrek (Alma de Biaska eta Arco de Biaska) emaitza esanguratsuak lortu dituzte nazioarteko txapelketetan. Lehen txakurra 2022an geratu zen Europako txapeldun, eta bigarrenak marka berdina lortu du aurten.



Testua **Txabi Alvarado Bañares**

Emaitza esanguratsuak lortu ditu Jesus Baladok bere txakurrekin, Ehiza Bilaketa deritzon jardunean batik bat. “Dena hasi zen nire lehen txakurra erostera joan nintzenezan Frankfurtera”, azaldu du amurriarrak. Setter Gordon bat zen, Sundowner Emporio izenekoa, eta ehizarako baliatzeko eskuratu zuen. Baina, “potentzial handia” zuela ikusita, norgehiagoken munduan murgiltzea erabaki zuen animaliarekin. Arabako eta Euskadiko txapelketetan egin zuen proba, eta biak irabazi zituen.

Orduan, mailaz igo eta nazioarteko probetara egin zuen jauzi. Toledo eta Andaluziara jo zuen lehenbizi, eta Europa-

ko gainontzeko herrialdeetan lehiatzeari ekin zion gero, txapeldun izatera iristeraino zenbait modalitateetan. “Nire lehen txakur hura Frantzia, Italia, Espainia, Polonia eta Serbian lehiatu zen eta emaitza paregabeak lortu zituen”, nabarmendu du Baladok. Hainbat kategoriatan eta sariketetan gailendu zen animalia: Bilatzaile Handia izenekoan, lanarenean, edertasunarenean eta txapelketa dualean.

Emaitzak ikusita, Muniche-rajoko amurriarrak txakur eme bat eskuratzeko, Latika Vom Eixelberg izenekoa. Bi txakurrak ugalduta jaio ziren Alma de Biaska eta Arco de Biaska txakurkumeak, eta horiek izan dira markarik esanguratsuenak lortu dituztenak. Lehenak 2022an lortu zuen Ehiza Bilaketako Europako txapeldun izatea. Biga-

rrenak, aldiz, aurten lortu du marka horretara iristea.

Baladok azaldu duenez, Ehiza Bilaketa modalitatean txakurrik bikoteka doaz eper basatien bila. Bizirik topatu eta eraman behar dizkiete euren jabeek. Ondoren, hegaztiak askatu behar dituzte, eta geldi egon behar dira animalia hegaka ateratzen den bitartean. Orduan, jabeek tiro egiten diote hegaztiari, probari amaiera emanaz. Baladoren hitzetan, ez dute balarik tirokatzen eta, ondorioz, bizirik ateratzen da eper-rra. “Oso modalitate jasanagarri eta errespetuzkoa da hegazti-erako”, nabarmendu du.

Txapelketaren garrantzia

Balado pozik dago lortutako emaitzarekin, “izugarriko arrakasta” izan dela uste bai-

Une honetan bi txakurrekin ari da Jesus Balado txapelketetara aurkezten, eta biak lortu dituzte sari eta aitortza ugari Espainiako Estatuko zein nazioarteko topaketetan

tu. Izan ere, Europako Ehiza Bilaketa Gordon txapelketa da mota horretako norgehiagokarik garrantzitsuena arraza horretako txakurrentzat. Herrialde bakoitzetik 5 txakur hautatzen dira bertan parte hartzeko, eta Nazioarteko Txakur Federazioko hiru kide aritzen dira epaile lanetan.

Gaur egun sei txakur ditu gutzira Baladok. Lehen biak “jubilatuta” daude dagoeneko, 10 eta 13 urte dituztelako. Beste bi ehizan aritzen dira, eta azken biak dira artikulu honetan aipatu diren Arco eta Alma. Etorkizunera begira, “kalitatezko txakurrik hazten” jarraitu nahi du amurriarrak, animalien “lanean zein edertasunean” jarriz arreta, “modu horretan hondar-ale bat jartzeko txakur-arrazaren hobekuntzan”.

ARETO FUTBOLA

Buru osasun zentroen arteko liga irabazi du ASASAM elkartekeko taldeak

Testua
Aitor Aspuru Saez

ASASAMek irabazi du Bizkaiko eta Arabako buru osasunari lotutako elkarteek eta zentroek jokatzen duten areto futboleko liga. Berrez, partida guztiak irabazi dituzte aiaraldearek, bat salbu, zeina berdin zuten, eta horri esker txapel-dunak izan dira lehiaketa bukatu baino lehen.

Edonola ere, Jon Ovejas Nuñez entrenatzaileak aipatu dio Aiaraldea Komunikabideari bidea ez dela erraza izan: "Partida batzuk errazak izan dira, baina beste batzuetan aurkariak oso zailak izan dira".

Urrian hasi ziren norgehiagokak eta maiatzaren 31n izango da azken partida Zamudion. Han banatuko dituzte talde zein norbanakoen sariak eta ospakizuna egongo da gero.

Jon Ovejas Nuñezek azpimarratu du kirola eta dieta ezinbestekoak



ASASAM taldeko jokalariek, artxibo irudi batean. ASASAM

direla buru osasuna zaintzeko eta kirolean aritzeak talde izaera ematen diela parte hartzaileei: "Euren arteko harremana hobea da". Berrez, astean bitan entrenatu dute

kirolariak eta alde fisikoa eta psikologikoa jorratu ez ezik, Athletic Fundazioko teknikarien bisita izan dute astero, kirolaren alde teknikoa lantzeko.

FUTBOLA

Thaylor Lubanzadiok denboraldiaren balorazio positiboa egin du eta zein taldetan jokatuko duen erabakiko du aurki

Testua
Aitor Aspuru Saez

Thaylor Lubanzadiok kirol denboraldia amaitu berri du Maltaan, Gzira United klubean, eta Laudiora itzuliko da orain. Oporraldian hautatu beharko du non jokatuko duen etorkizunean eta, antza, aukerak ez zaizkio faltako. Hala azaldu dio Aiaraldea Komunikabideari:

"Ligako bi klub onenen eskaintzak dauzkat, egun batzuk hartuko ditut lasai, etxean pika bat gozatzeko eta gero erabakia hartzeko. Herrialdez aldatu eta liga eta herrialde berriak bizitza nahi nituen, eta ikusiko dugu zein erabaki hartuko dudana".

Denboraldi honetan sei gol egin ditu audioarrak, eta beste lau banatu dizkie bere kideei.



Lubanzadi klubeko eslastikoarekin.

SASKIBALLOIA

Sugarrak klubeko haur taldeko mutilak txapel-dun

Testua
Aitor Aspuru Saez

Maiatzeko bigarren asteburua bizia izan zen Granja kiroldegian, baina amaiera zoriontsua izan zuen Audioko jokalarientzat. Izan ere, jokoan egon zen Arabako Saskibaloi Txapelketako haur kategoriako Lauko Finala, eta Sugarrak izan zen irabazlea.

Larunbatean Zabalganaren kontra neurtu zituzten indarrak eta hirugarren laurdenera

heldu arte ez zuten lortu abantaila nabarmena ezartzea markagailuan. Azkenean, gasteiztarrek bultzada eginda, markagailu motzarekin bukatu zuten irabazten audioarrek. Behin finalera igarotzea lortuta, igandeko 18:00etan jokatu zuten txapelketan erabaki behar zuten norgehiagoka. Granja udal kiroldegiko harmailak jarraitzailez bete ziren eta audioarrak azken unean gailendu ziren, 41-38 emaitza estuarekin.

FUTBOLA

Aingeru Olabarrietak debuta egin du Athletic Clubarekin



Aingeru Olabarrieta Iker Muniain eta Raul Garciaeren artean. Athletic Club

Testua
Aitor Aspuru Saez

Iragan igandea egun garrantzitsua izan zen Aingeru Olabarrieta Capelorentzat. Izan ere, zenbait aldiz Athletic Clubeko lehen taldearekin deitua izan ondoren, debuta egin zuen La Ligan, txapelketako azkenaurreko jardunaldian. 81. minutuan sartu zen San Mameseko futbol zelaian Iñaki Williamsen ordez eta kirol prentsak

azpimarratu du joko distira interesgarriak utzi zituela minutu gutxitan.

Olabarrietaren ongi etorriarekin batera, Iker Muniain eta Raul Garcia jokalariek batera agurra heldu da, Athletic Clubak berak argazki batean jaso duen moduan.

Denboraldi oso positiboa egin du aiarrarak Athletic Clubeko filialarekin. 29 partida jokatu ditu eta zazpi gol sartu eta hamar asistentzia sortu ditu.

ENKARKI

ALQUILAMOS SOLUCIONES VENDEMOS SERVICIO

Anova makina guztietan %5eko DESKONTUA

Motoaitzurak, inausketa tresnak, hidrocarbogailuak, motozerrak, belarra mozteko makinak (robotak barne) eta askoz tresna gehiago!

ANOVA®

forest & garden products



Arza II industrialdea, LAUDIO · 946 43 00 42 · enkarki@enkarki.net
www.enkarki.net · f i x @enkarki

arrate

gestoria aholkularitza aseguruak

Utzi zure errenta **23** profesionalen eskuetan

Iturralde kalea 2, AMURRIO
945 89 02 06
info@arrategestoria.com
www.arrategestoria.com

Errenta-aitorpenaren plangintza gurekin egin ezazu.

20 urte baino gehiagoko esperientzia

kirola

**“Talde osoak
lan bikaina egin du
hasieratik amaierara”**



ASIER PINEDO SANCHEZ (Amurrio, 2007) ZARAUBE SASKIBALOI KLUBEKO GIZONEZKOEN JUNIOR TALDEKO KIDEA DA. BERAK ETA BERE TALDEKIDEEK EUSKAL LIGA A-2 IRABAZI DUTE.



Testua eta argazkia
Naia Vallejo Torres

Nola bizi izan duzue denboraldi hau?

Denboraldi hau izugarria izan da. Talde osoak lan bikaina egin du hasieratik amaierara eta disfrutatu dugu. Taldean ondo pasatzea eta elkarrekin gozatzeko aukera izatea oso garrantzitsua izan da, urte asko daramatzagu elkarrekin jokatzeko eta ondo ezagutzen dugu elkar.

Nolako izan da ibilbidea txapelketa irabazi arte?

Ibilbidea ez da batere erraza izan. Arabako Ligan hasi ginen eta partidu bat galdu genuen. Horren ondorioz, bigarren postuan amaitu genuen. Final four-ean finalaurrekoa irabazi eta finala galdu genuen. Baina, huts egin arren, Euskal Ligako bigarren mailara ailegatu ginen. Euskal Ligan primeran hasi ginen eta txapeldunak izan ginen azkenurreko jardunaldian.

Ospetsu egin den oihu berezi bat duzue, ezta?

Bai, aurreko urtean “1,2,3 Burgos!” oihukatzen hasi ginen eta, ikusita gure denboraldia ondo zihola, aurreko mantentzea erabaki genuen. Denboraldi honetan gure helburu nagusia lortzeko eta Burgosek partidu bat ikustera joateak berezia bihurtu dute oihua.

**“Belaunaldi
oso onak datoz
eta norabide
onean goaz
Zaraobe
Saskibaloi
Klubean”**

Zuen ustez zein izan da titulu hau lortzeko sekretua?

Hau lortzeko hainbat gauzek izan dute eragin handia. Alde batetik, taldearen garrantzia dago, lagunak garelako eta urte asko daramatzagulako elkarrekin jolasten. Bestalde, talde entrenamendu serio baina, aldi berean, dibertigarriak egin ditugu denboraldian zehar.

Hurrengo denboraldira begira, zeintzuk dira dituzuen asmo eta erronkak?

Taldeko gehienek taldea utzi behar dute, adina dela eta. Baina hurrengo urtean jarraituko dutenak ahaleginduko dira maila mantentzen, Euskadiko talde onenen kontra jokatzeko.

Zuen klubak berrogei urte beteko ditu aurren. Nola baloratzen duzue lau hamarkadetan zehar eginiko ibilbidea?

Ez ditugu urte gehienak bizi, baina azken urteetan ikusten ari da atzean dagoen lana klubaren hobekuntzarekin. Belaunaldi oso onak datoz eta norabide onean goaz.

herriko plaza

Idatzi zure mezua eta bidali argazkia agurrak@aiaraldea.eus helbidera eta Aiaraldea.eus atarian plazaratuko dugu. Ekainaren 5ean argitaratuko da hamabostekariaren hurrengo zenbakia.



Aizane eta Izargi

Zorionak laztanak eta mila esker eman dizkiguzuen 10 urte zoragarri hauengatik, ez aldatu inoiz!

Familia



**BIDALI
ZURE
ZORION
AGURRA!**

Denborapasak

ERRAZA

	5							3
	2	3	8		9	7	5	4
	7		3			9	6	8
		5		4		6		
3	9	6					4	7
					7	3		
	3	7	4		6	5	8	
		4				2	7	
8					5	4	3	

ZAILA

			7					
						3	2	8
4		8				6	9	
			0		1			

DENBORAPASEN SOLUZIOAK Sudoku, hitz-gurutatu eta hitz gezidunen soluzioak webgunean ikusgai: <http://www.aiaraldea.eus/users/denborapasak>

Zozketa



Amurrioko Go!azen emanaldirako lau sarrera bikoitz zozkatuko ditu Aiaraldea Komunikabideak

Maiatzaren 26an, larunbata, izango da emanaldia, 17:00etan Amurrio Antzokian, Araba Euskarazek antolatuta. Parte hartzeko sartu www.aiaraldea.eus atarian. **Zozketaren data:** Maiatzak 25, 12:00etan.

SOLUZIOAK

Zertarako erabiltzen dituzu eskuko hatzak? Gitarra jotzeko? Muki lehorrak ateratzeko? Arkatzei eusteko? Bada, batzuek ipuintxoak asmatzeko ere baliatzen dituzte. Hatz bakoitzean pertsonaia bana marraztu, eta istorioak kontatzen hasten dira. Hemen azpian esku baten ertza dago. Hiru pertsonaia ditu: Txirrita bertsolaria, Altzoko Handia eta Margarita Nafarroako azken-aurreko erregina. Bostekoa osatzeko beste bi pertsonaia falta dira. Egin itzazu zure gustukoak.

Pertsonaiez gainera, marraztu eskumuturreko bat, eraztun polit bat eta ia esku osoa beteko duen tatuaje bat. Ondo margotu.



Kontai!



NIK
BADAKIT!!

Bakoitzari berea

Ezagutzen al dituzu eskuko hatzen izenak? Hala bada, lotu hatz bakoitzari bere izena. Batzuek izen bat baino gehiago dute.



TXIKIA

ERPURUA

NAGIA


ERAKUSLEA

LUZEA

LODIA

BIZKORRA

HANDIA



babestutako edukia



KOKORIKOREN UDAKO ESKAINTZA



2024

Basoan EUSKARAZ jolasean

• ORDUTEGIA

Astelehenetik ostiralera,
09:00etatik 15:30etara.

* Jantoki zerbitzua egongo da.



• TOKIA

Olarte auzoa (Laudio).
Udalekua BASO BATEAN garatuko dugu.
Luiaondon utzi eta jasoko dira haurrak.

• ADINA

2014-2021 urte bitartean jaiotako haurrak.

• TXANDAK

1. Ekainaren 24etik 28ra.
2. Uztailaren 8tik 12ra.
3. Uztailaren 22tik 26ra.
4. Uztailaren 29tik abuztuaren 2ra.

• PREZIOAK

Aste bat: 4 aste:
- Bazkideak 75€ - Bazkideak 270€
- Ez bazkideak 85€ - Ez bazkideak 310€

* Jantoki zerbitzua prezioaren barruan sartzen da.

Faktorian IKERTZAILE bihurtu

• ORDUTEGIA

Astelehenetik ostiralera,
09:30etatik 13:30etara.

• TOKIA

Faktoria (Laudio).

• DATAK

Abuztuaren 5etik 9ra.

• ADINA

2014-2021 urte bitartean jaiotako haurrak.

• PREZIOA

- Bazkideak 50€
- Ez bazkideak 55€



Sorginkerien UDALEKU itxia

• DATAK

Irailaren 2tik 5era.

• TOKIA

Garaion Sorgingunea (Ozaeta, Araba).

* Haurrak autobusez jaso eta bueltatuko dira.

• ADINA

2012-2018 urte bitartean jaiotako haurrak.

• PREZIOA

- Bazkideak 180€
- Ez bazkideak 200€



4 egunez SORGINKERI ezberdinak egiten pasatuko ditugu egunak eta gauak ere! Sorginek egin bezala, naturan dauden elementuekin ukenduak egingo ditugu. Eta, sorginek aspaldian egin bezala, naturan jolastu eta dantzatuko dugu.

IZEN-EMATEA

maiazaren 2tik aurrera

- www.labur.eus/faktoriaudalekuak2024 bidez
- Telefonoz: 693 855 312 (Aritz) 09:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara.

* Leku mugatuak daude. Ez-bazkideen kasuan oradinketa datoren arabera gordeko dira plazak. Bazkideen kasuan izen-emate ordenaren arabera.

* Izena emateko azken eguna txanda hasi baino aste bete lehenago itxiko da.



Kontra

Mundutik Aiaraidera



Laura Laumen

JAIOTERRIA
ALEMANIA

BISITATUTAKO TOKIA
OROZKO

BIDAIAREN XEDEA
FRIBURGOTIK GORBEIARA BIDAIATZEN ARI
DA BERE POTTOKAREKIN

ALEMANIA



DESKRIBAPENA

Hamasei estatuk osatzen dute Alemania gaur egun. Bakoitzak bere funtsezko legea dauka, eta autonomia asko garatu dute gobernu zentralarekiko. Friburgo hiria Baden-Württemberg estatuan kokatuta dago, eta izen bereko eskualdeko hiriburua da.

AZALERA

357.022 kilometro koadro.

BIZTANLEAK

83,1 milioi biztanle.

HIZKUNTZAK

Alemaniera da hizkuntza ofizial bakarra, beste hainbat hizkuntza ere erabiltzen diren arren.

“Jalgi haurdun geratzeko goaz Alemaniatik Orozkora”

Nolakoa izaten ari da Alemaniatik Orozkora joatearen abentura?

Nire amarekin abiatu ginen txirrindulaz eta bizikleta maleztaz gainezka zegoen. Beste ekipaje apur bat eramaten nuen muntatzeko aulkian eta noizbehinka igotzen nintzen zaldian. Hori bai, hamar egunen ondoren, nire amak etxera itzultzeko beharra zuen.

Hurrengo egunean ni egon nintzen bakarrik behorarekin eta gero heldu zen nire aitaren txanda. Bera agertu zen autoarekin eta ekipajea ibilgailuan sartu zuen. Horrez gain, lagundu dit ostatuak bilatzen eta antolatzen.

Nola antolatzen duzue azpiegituren alor gutzia?

Oro har, hipiketan geratzen

gara, edo behor-taldeetan egiten du lo. Hala ez bada, zaldiak, behiak edota astoak dauden tokietan geratzen gara. Helburua da Jalgik (behorrak berak) bazka eta norekin egon izatea. Leku horietan bertan ez badago non lo egin, bilatu behar ditugu campingak edo ostaturen bat, edo horrelako zerbeit.

Zenbat kilometroko ibilbidea betetzen duzue egunero, gutxi gorabehera?

Egunero egiten ditugu 15 eta 35 kilometro arteko ibilbidea. Batazbestekoa esango nuke 25 kilometrokoa dela, baina kalkuluak egin beharko nituzke berriro [barreak].

Dena den, azaldu beharra dago jadanik ez naizela Jalgin igotzen eta aulkia ere ez dugula asko era-

biltzen. Berez, behorren bizkarra asko eraldatu da. Tarte honetan argaldu da eta gihartsuago bilakatu da. Ondorioz, aulkia ez zaio ondo sartzen bizkarrean.

Zergatik egiten ari zara periplo luze hau?

Hasteko, egin nahi nuen abentura hutsagatik, ibilbide luzea betetzearen esperientziagatik. Halaber, erakutsi nahi diot jendeari Jalgi gai dela hau egiteko. Hori ez ezik, nahiko nuke Jalgiren zaldikumea ere izatea.

Buruan nuen zaldi ibilbide luzea egitea, astebeteko bidea egin ondoren oportetan. Geroztik, irakurri ditut zenbait zaldizkoren bidaia koadernoak eta handik inspirazioa lortu dut. Aurten denbora izan dut egiteko eta horretara jarri naiz.

Nahiko harrigarria da Alemaniatik Orozkora bidea egitea. Nola suertatu zen bidaiaren ideia?

Batxilergoa amaitu eta gero, Arabako hipika batean aritu nintzen lanean. Han bi pottoka zituzten hezteko, Jalgi eta bere neba. Jabeak oparitu zidan, beste aukera zen zerrak egitea berarekin. Alemaniara ekarri nuen duela bost urte inguru.

Zergatik da Orozko helmuga?

Hazitarako zaldiaren bila hasi nintzen, Jalgi haurdun gera dadin. Hasieran, norbaitek jarri ninduen harremanetan Jose Mari Rekarterekin, berak hazitarako zaldia zuelakoan, baina benetan zaldia zuena Ignazio Olabarria zen, Orozkoko abeltzain bat. Gorbeian dauka zaldi-taldea.

EGUNKARI HAU LAGUNTZEN DUTE:



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA